


BIZITEGI ERAIKINA
D MAILA

ALDAMAR 34



Egile ezezaguna, 1911
Ez dago jatorrizko proiektuaren planorik Udal Artxiboan

Deskribapena

Kantoiko eraikina, erdisotoa, tarteko oina, lau goi oin eta bi jasodura atzeraeman (azkena 1947koa) dituena. Fatxada harlandua, kantoï kurbatua duena. Nabarmentzekoak dira pilastrak, erlaitzeko mentsulak eta kantoiko erlaitz frontoia (horren goialdeko silueta jasoduren hondoan galtzen da).

Babes erregimena

1. Erregimen orokorra:
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.
2. Berariazko erregimena.
 - A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: jasodurak (5. eta 6. goi oinak).
 - B. Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.
 - C. Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: ez, erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzeari lotutakoak izan ezik, hala badagokio.